



FEDERACIÓN NAVARRA DE KARATE Y DISCIPLINAS ASOCIADAS
NAFARROAKO KARATE FEDERAZIOA ETA DIZIPLINA ELKARTUAK

KIROLAREN ETXEA – NAFARROA ARENA PABILIOIA
AIZAGERRIA PZA. 1.A PK - 31006 IRUÑEA.

TFNOA.: 948211806 - E-MAIL: dtecnica@fnkarate.com

secretaria@fnkarate.com

WEB: www.fnkarate.com

IRUÑEAN, 2022ko apirilaren 13an.

GAIA: Nafarroako XXXV. Kirol Jokoen V. Jardunaldia Promozio kategoriako Kata modalitatean.

Mezu honen bidez, Nafarroako Karate eta Diziplina Elkartuen Federazio guztiak gonbidatu nahi ditugu Promozioko Nafarroako Txapelketan parte hartzera. Kategoriak honako hauek izango dira: Benjaminak (7 urte arte), Kimuak (8-9 urte), Haurrak (10-11 urte) eta Gazteak (12-13 urte). Modalitateak gizonetzkoen eta emakumezkoen kata izango dira.

EGUNA, TOKIA ETA ORDUA: Maiatzaren 22an (igandea) Uharteko Udal Kiroldegian 10:00etan.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

- Inskribatutako kategoriari eskatzen zaion adina izatea txapelketaren egunean.
- Federazioaren 2021-2022ko lizentzia izatea.
- Katagoria ofizialeko txapelketetan lehenago parte hartu ez izana; ez Katan, ez Kumiten.
- Nafarroako Kirolaren Institutuarekin Karateko NKJentzat hitzartutako 5 €ordaintzea.
- Benjamin kategoriak ez du ordaindu behar NKJetan sartuta ez dagoelako.

LEHIAKETAREN FORMATUA:

Lehiakide guztiak oinarrizko bi kata egingo dituzte (errepikatu ahal dute) tatamietan, bata bestearen atzetik, eta epaileek banan-banan puntuatuko dituzte.

Puntuazio altuena lortzen duten hamar partaideak katagoria bakoitzeko onenak izanen dira eta sarituak izango dira.

INSKRIPZIOAK: Maiatzaren 15eko (igandea) 22:00ak baino lehen **Rockthesport**-en bidez.

ENTRENATZAILEAK: Parte hartzen duen klub bakoitzeko entrenatzaile arduradun bakarra izanen da, Coach titulazioa duena. Honek, bere erantzukizunpean eta salbuesenez, lizentzia indarra duten bi laguntzaile izenda ditzake. Antolatzaileei emanen zaizkie haien datuak txapelketa egin baino 24 ordu lehenago.

BAIMENIK GABEKO INOR EZ DA KANTXAN EGONGO.

Besterik gabe, agur bero bat.

Natalia Bendoiro López

Nafarroako Karate eta D.E. Federazioko Jarduneko Presidentea